



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2017KO ABUZTUAREN 18AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

#### **Mikel Agirrezabala Ezkurdia**

Etorri diren zinegotziak:

Itziar Arratibel Imaz

Jon Mikel Iglesias Otegui

Jexus Peñagarikano Labaka

Itziar Jauregui Huarte

**Idazkaria:** Arantza Arrue Etxeberria

Ibarran 2017ko abuztuaren 18an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta behin-behineko idazkari lanetan Arantza Arrue.

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO UZTAILAREN 21EKO AKTAREN ONARPENA**

2017ko uztailaren 21ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Deuseztea 4.3 puntua, 2017-2018 ikastaroen tasak eta ordainketa modua onartzen duena, Udalbatzarena delako eskumena.

**BIGARRENA:** Onartzea 2017ko uztailaren 21ean eginiko Gobernu batzarraren akta, zuzenketa egin ondoren.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **KULTUR TAILERREN ZERBITZUAREN ESLEIPENA**

2017ko ekainaren 23an eginiko Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ziren Ibarra Kultur Tailerren esleipena egiteko baldintza administratiboak eta teknikoak. Esleipena prozedura ireki bidez egingo zen, eskaintza ekonomiko hoberena egiten zuenaren alde, eta adjudikazio irizpideak jasotzen ziren. Halaber, Adjudikazioaren gastuak baimendu ziren .

2017ko uztailaren 3ko G.A.Oean argitaratu zen Kultur Tailerren zerbitzua esleitzeko deialdiaren iragarkia

Proposamenak aurkezteko emandako epean proposamen bakarra aurkeztu zen, TEILAZPI KULTUR TAILERRAK enpresarena.

Kontratazio mahaiak, 2017ko abuztuaren 3an egindako bileran, TEILAZPI KULTUR TAILERRAK enpresaren eskaintza proposatu zion Kontratazio organoari.

2017ko abuztuaren 3ko Alkate dekretu bidez erabaki zen TEILAZPI KULTUR TAILERRAK. enpresari eskatzea, hamar eguneko epean, errekerimendu hartan jasotzen ziren agiriak.

Ikusirik TEILAZPI KULTUR TAILERRAK. Enpresak emandako epean aurkeztu dituela eskatutako agiriak, eta 2.714,40 euroko behin-betiko bermea ezarri duela, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## **ERABAKIA**

LEHENA: Esleitzea kultur tailerren zerbitzua TEILAZPI KULTUR TAILERRAK.enpresari, 2 ikasturterako eta luzatu ahalko da ikasturte bateko beste bi alditan, 36,00 €/orduko prezioan (BEZ barne).

Enpresa honek BEZetik salbuetsitako jarduerak egiten dituela ziurtatzen duen agiria aurkeztu du.

BIGARRENA: Kontratua sinatu aurretik TEILAZPI KULTUR TAILERRAK.enpresak aurkeztu beharko ditu:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- 1) Koordinatzailearen eta monitoreen hizkuntza gaitasuna egiaztatzen dituzten agiriak, eta horrela ez bada, Euskara departamentuak egindako proba gainditu beharko dute.
- 2) Antolakuntza prebentiboaren ereduaren ziurtagiria.

HIRUGARRENA: Erabakiaren berri ematea enpresa adjudikazio hartzaileari.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu and.ak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamabiak direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut